

8. XIX. MENDEKO BIGARREN ERDIA: NARRATIBA ERROMANTIKOTIK ERREALISMORA EUROAPAN

XIX. mendearren bigarren erdian, Erromantizismoa indarra galduz joan zen eta ia XX. mendera arte gailenduko zen mugimendu indartsu bat sortu zen: Errealismoa. Honek Naturalismoa izan zuen alderdirik muturrekoena eta berandukoena.

XIX. mendeko eleberrigintzak bi korrante edo joera ditu erreferente: aurreko mendetik zetorren **Erromantizismoa** eta, bestetik, gero eta indar handiagoa hartuz joango zen **Errealismoa**. Azken mugimendu honek eman zituen, zalantzarik gabe, XIX. mendeko eleberrigile garrantzitsuenak eta gerora literaturaren historian eragin izugarria utziko zutenak.

Aldaketa honen oinarrian, urte horietan gertatu ziren gizarte-aldaketak eta zientzia nahiz teknologia mailan hedatuz zihoazen aurrerapenak izango genituzke. Hona zenbait faktore:

- **Gizarte gatazka:** Industrializazioaren ondorioz, gizartea klase desberdinetan egituratuz zihoan. Hiri-guneetako langileria nabarmenki hazi eta garatu zen. Teknologiaren garapenak garaiko ohiturak eraldatu zituen: makina eta motor berrien asmakuntzak, hala nola telefonoa, telegrafoa, bapore-ontziak, trenaren hedakuntza... Bestalde, garai latzak izan ziren hiri industrial berrietan baldintza negargarrietan bizi ziren langileentzat. Hauek hainbat gatazka eragin zuten; ordukoa da, hain zuzen, Marx eta Engels-en Manifestu komunista (1848), sozialismo zientifikoaren oinarri. Ondorioz zenbait mugimendu iraultzaile agertu ziren: sozialdemokrata, komunista eta anarkista.
- **Filosofia positibista** nagusitzen da pentsamenduan. Naturaz gaindiko zernahi azalpen saihestuz, behagarriak diren gertakarien ikerketa jotzen da kontzeptuetara iristeko bide bakartzat. Artista errealistek egoera nahiz pertsonaien behaketan oinarrituko dituzte euren lanak. Errealitatea datu egiaztagarrietan azaltzen da eta horietatik abiatu beharko du beti artistak.

Lasto-biltzaileak koadro errerealistan **Jean-François Millet** pintoreak (1814-1875) nekazarien lana erakusten du, baina alderdi soziala azpimarratuz. Hiru emakume nekazari uztaren azken hondarrak batzen dabiltza, baserri-lanetatik gogorrera eta ezezagunera. Hiru pertsonaiak lehen planoan ageri dira, heroiak bailiran, eta euren jarretan ezagun da ataza gogorrak sortzen dien nekea.



Errealismoa literaturan

Errealismoak Frantzia izan zuen adierazpiderik erradikalena; erromantizismoa Europan Alemaniako erromantizismoaren bultzadaz sortu zen bezala, hala esan daiteke Europako errealismoa frantses errealismoaren ondorioa izan zela; horrez gainera, frantses idazleek errealismoa azken muturreraino eraman zuten.

Hala ere, ez dago esaterik 1850etik 1890era Europan egin zen literatura osoa errealista izan zenik, 1800etik 1840ra literatura osoa erromantikoa izan ez zen bezala.

Errealismoaren ezaugarrien artetik honako hauek gailentzen ziren:

- **Metodo zientifikoaren imitazioa:** idazleak bere lanek gizarte-errealitatea era zehatz eta objektiboan islatzea bilatzen du. Horrela, eleberria **bizitzaren ispilu** bihurtzen da.



- **Narratzaile orojakilearen presentzia:** autoreak zer gertatuko den aurreratuko duen norbaiten rola hartzen du, iritzia ematen du, bere pertsonaiei irizten die, irakurlearekin hitz egiten du, eta abar.
- **Sinesgarritasuna:** argudioak eguneroko errealitatean oinarritzen dira, pertsonaia komunekin. Gainera, autorearen eta irakurlearen **garaiko testuinguruan** kokatzen dira.
- **Xalotasuna:** tankera xaloa, xehea, konplikazio formalik gabea da. Zientzialariaren antzera, idazleak batez ere argitasuna eta zehaztasuna bilatzen ditu.
- **Eleberriaren gorakada:** errealismoa batik bat eleberriaren bitartez mintzatzen da, generorik egokiena gizarte-errealitatea deskribatzeko. XIX. mendea nobelagintzaren urrezko mendetzat jo izan da.

Naturalismoa

1871tik aurrera Frantzia garatutako eleberri-joera batetik zetorren. Emile Zolak (1840-1902) sortu zuen; izan ere, eleberrigileak zientzialari gisa joka zezan nahi zuen.

Eleberri-egileak bere pertsonaiak aztertu eta **zientzia-zehaztasunez** deskribatu behar zituen. Pertsonaien jokabidea bizi ziren gizarte-giro eta herentzia biologikoaren eraginaren ondorioak ziren. Horretan zetzan joera hori.

Helburu horiek lortzekotan, idazle naturalistak **metodo zientifikoa** imitatzen du: giro eta pertsonaien behaketa eta dokumentazioa, datuak egiaztatzea...

Idazle naturalistak oso **deskripzio** xeheak erabiltzen ditu eta psikologia eta medikuntza oinarritzat hartuta azaltzen du pertsonaien jokabidea. Gainera, giza bizitzaren **alderdi likits** eta narrasak deskribatuz ausartago agertzen da.

FRANTZIAKO NOBELA ERREALISTA

XIX. mendearen bigarren erdia eleberriaren urrezko garaia izan zen eta burgesiaren garaipen sozialari hertsiki lotuta egon zen. Europa osoko idazleek jarrera kritiko eta errealistaren bidez deskribatzen zuten gizarte berria, baina guztien artean bortitzena Frantzia izan zen. Lau nobelagile aparta eman zituen:

- Stendhal
 - Balzac
 - Flaubert
 - Zola
- **Stendhal** ezizenaz ezagutzen dugun **Henry Beyle** (1783-1842) idazleak bizitza erromantikoa eraman zuen, garaiko gizarte zitalarekin etengabeko gatazkan. Bertatik ihes egiteko asmotan Italiara joan zen; harentzat bigarren aberria bihurtu zen. Margolaritza eta bidaiei buruzko liburuak idatzi zituen, baita biografiak ere eta bere bizitzako azken urteetan eleberriak.
Gorria eta beltza (1830) eleberrian herritar batek erdietsiko ez duen gizarte maila igoera eta zoriona lortu nahi ditu, bere handinahia bide bakarra izanik. Istorio honen bidez idazleak frantses gizarte burges itxurata deskribatzen du jarrera neutral eta estilo neurritsuaz.
Parmako kartusia (1839) Italian girotutako obra honetan, familiak arbuiaututako aristokrata gazte baten gertaerak kontatzen ditu. Hau eliza eta politikaren arteko ikasketak egiten hasten da. Azpikeriak erabilita eta bere maitalea baztertuz arrakasta lortzen du.
 - **Honore de Balzac** (1799-1850) Neurrigabekeriak markatu zituen idazlearen bizitza eta obra. Gaztaro txiro eta buhame baten ondoren, arrakastak luxu eta zarrastelkeriaz jositako bizimodua eman zion (ondorioz, zorrak). Hainbat amodiozko istorio izan ondoren, azkenik ukrainiar aristokrata batekin ezkondu zen.
Idazleak bere gizartearen irudi zehatz eta zabala eman behar zuela pentsatzen zuelako, obra erraldoia idatzi nahi izan zuen Balzac-ek. *Giza komedia* (1841) proiektu literarioaren izenburupean laurogeita bost nobela bildu zituen. Horietan guztietan, milaka pertsonaia sortu zituen egile frantziarrak, eta testuotan erabilitako dokumentazioa, xehetasunak, deskribapen zehatzak... ezinbesteko dira 1789-1848 bitarteko Frantzia ezagutu nahi duenarentzat.

Obran zehar garaiko gizartearen kritika egiten du batez ere. Azpimarragarriak dira *Eugénie Grandet* (1833), alabaren zoriona oztopatzen duen gizon zeken bati buruzkoa, eta guztiz kontrako istorio bat: *Goriot Zaharra* (1834), aita batek bere alaben amodio kontuak eta gutziak betetzearren egiten dituen sakrifizioak kontaktzen dituen.

Flaubert: nobela modernoaren oinarriak

Gustave Flaubert (1821-1880) frantses idazle errealisten artean modernoena izan zen, pertsonaien psikologia hausnarketa eta giroen deskribapenagatik.

Giro eta eszenak trebezia deskribatzeko zuen gaitasunaz gain, pertsonaien barne gatazkek testuratzeko abilezia handia zuen. Objektiboa izan nahi zuen Flaubertek, zehaztasunez idatzi, eta horregatik nahiago zuen bere iritzi eta juzgu moralak saihestu eta irakurlearen esku utzi begien aurrean pasatzen zitzaizkion gertakari haien guztien balorazioa. Objektibotasun eta sinesgarritasun nahiak zirela-eta, batzuetan benetako gertakarietatik abiatzen zen bere nobelak idazteko (adibidez, *Madame Bovary*-n).

Estiloarekiko kezka etengabeak bihurtzen du nobela modernoaren aita Flaubert. Eta nobela moderno diogunean, forma, idazketa bera kontaktzen den istorioari gailentzen zaion nobelaz ari gara. Behin lagun bati idatzi zion bezala, ezer kontaktzen ez zuen liburua idaztea zuen helburu. Estiloa bera euskarri bakar zuen nobela. Horregatik zaintzen zituen ondo baino hobeto perpausen luzera eta egitura, hitzen sonoritatea, zehaztasuna..., bai eta nobelaren egiturari berari zegozkion baliabide narratiboak ere, hala nola ikuspuntua, denboraren antolaketa, edukien dosifikazioa edo narratzailearen ahotsa.



Madame Bovary elaberria behin baino gehiagotan eraman da zinemako pantailatera. Irudian, Claude Chabrol zinegile frantsesaren azken bertsioaren fotograma (1991), Isabelle Huppert-ekin Emma-ren rolean.

Besteak beste, ipuinak, eleberri historiko eta fantastikoak eta bi nobela bikain idatzi zituen:

- *Madame Bovary* (1857) bere maisulana izan zen. Obrako zenbait eszena eskandaluzkotzat jo ziren, eta auzitara eraman zuten, nahiz eta gero barkatu. Obra Erromantizismoaren aurkako kritika da. Nobelan gai arruntik ez dagoela eta dena kontaktzeko eraren baitan dagoen ideia Flauberten nobelagintza oinarritzen duten axiometako bat da. *Madame Bovary*-n kontaktzen den historia ezin liteke erdipurdikoagoa izan: probintziar giroan, nekazari abertas baten alabak, Emma Bovary-k, ilusio erromantikoko mundua bizi du, gero mediku arrunt eta xume batekin ezkontzean porrot eginik gelditzen dena. Hori dela-eta, maitaleekin ibiltzen da, zorrak egiten ditu eta azkenean bere burua erabat harrapaturik ikusten du, amaiera tragikora amildurik. Baina nobela irakurri behar da, Flaubertek horrelako istorio batetik liluraz beteriko pertsonaia nola sortu zuen ikusteko. Elaberri bikaina da *Madame Bovary*, eta bere protagonistan nagusia, Emma, irakurle askoren memorian geratu den emakumezko asegabea. Hutsaltasunaren, hipokrisiaren, alferreko ametsen munduaz inguratuta bizi da emakume asegabe hau eta, irakurketa erromantikoek beragan egindako kalteez haratago, bere inkomunikazioa, frustrazioa, ezinegona.. dira maisuki testuratzzen zaizkigunak.
- *Hezkuntza sentimentala* (1869) eleberriak emakume ezkondu batekin nahasturik dabilen gazte burges baten istorioa kontaktzen du. Amaiera tristea, denborak ilusioak hiltzen dituela ikusten dugu, ideia burgesen kritika sakona, hain zuzen ere.



Madame Bovary, Charles Baudelaire -Argumentua-

Lehen zatia

Charles Bovary, 15 urteko ume baserritarra, ez oso azkarra eta amazulua, Rouen hiriko ikastetxean hasiko da ikasle. Nahiz eta asko kostatu, mediku titulua lortuko du. Rouen hiriaren ondoan dagoen Tostes herritxoan hasiko da lanean. Bertan, Eloiserekin ezkonduko da, amak aurkitutako emakume alargun zahar eta diruduna. Bere bisitaldietako baten, Charles Emmaz maiteminduko da. Emaztea handik lasterrera hilko zaio eta Charlesekin Emmaren eskua eskatuko du ezkontzeko. Emakume hau astira-astiro aurkeztuko zaigu nobelan zehar, bere pertsonalitatearen ikuspegi eta inpresio ezberdinetatik. Oso emakume ameskorra da irudimen zorakoa, nobela erromantikoak irakurtzeak ameslari porrokatua bilakatu duena. Beti nobela erromantikoetako heroina sentitzen du bere burua eta senar idiliko eta xarmangarri bat topatuko duela uste du, beronek lurralde urrunetara eramango duela. Charles eta Emma ezkondu egiten dira. Charles ezin zorientsuagoa den bitartean Emma konturatzen da liburetan irakurri duen ametsezko mundu hori ez datorrela bat berak errealtatean duenarekin, bere bizitza arrunta dela eta gizon arrunt batekin ezkondu dagoela. Egun baten, inguruko gaztelu bateko dantzaldi batera gonbidatzen dute. Lehen aldiz barneratzen da nobeletan hainbat aldiz irakurritako mundu hartara. Atoan berpiztuko da luxuzko mundu miresgarri horrekiko maitasun itsua, nobela erromantikoetan irudikatzen zena. Gazteluan ikusitakoak liburu erramantikoetan amestutakoarekin bat egiten baitu. Emma, egoera ezin eramanda, emakume urduri eta gaixotia bilakatuko da. Charlesekin giroa aldatzea hoberena izango litzatekeelakoan Yonville herrian dagoen mediku postua hartuko du. Yonvillerantz abiatu orduko Emma haurdun dago.

Bigarren zatia

Behin Yonvillen Emmak alaba bat izango du, Berthe, baina Madame Bovaryk ez du inoiz ama lanik egingo. Yonvillen Bovary familiak auzokide berriak ezagutuko ditu. Homais jauna, botikaria, gizon kokolo, modorro eta nahiko barregarria. Lherheux jauna, saltzaile azkar eta manipulatzailea. Guillaumin jauna notarioa. Auzokide guztien artean Leon Dupuis notarioaren pasantea, hau ere erromantikoa baina guztiz odolbakoa, Emmarekin harreman nahiko ona eta estua izango du, gehienetan antzeko gustuak izango baitituzte, bai literaturan, bai maila estetikoan ere. Ezinezko maitasuna sortuko da bien artean, egoera honen aurrean Leonek, lotsati, ez dio maitasunaren berri emango Emmari eta Rouenera alde egingo du bere karreran gora egiteko asmotan. Emma erabat aspertuta eta asegabe biziko da, alde batetik, eguneroko errutinagatik eta, bestetik, senarraren lana dela eta beronen arreta faltagatik. Rodolphe Baulangerrekin hasiko da, Yonvilleko jaun aberats andrezale bat Madame Bovary eta Rodolphe amorante bilakatuko dira. Emmak alde egiten du etxetik egunero Rodolpherekin biltzeko, azkenean hain maiteminduta dago Emma ezen Rodolpheri Yonvilletik elkarrekin alde egitea proposatzen dion, Rodolphek baiezkoa ematen dio. Ezin zorientsuagoa da Emma sasoi honetan, eta bere diru xahutzeak neurrigabe hazten dira, ondorioz, Lherheux jaunarekin aspalditik duen zorra goraka doa etengabe. Baina Rodolphek ez du hitza beteko, bere sen burgesak aholkatzen baitio ezer irabaztekorik ez duela Emmarekin ihes eginda, eta bai asko galtzeko. Azkenik, beraz, Emma gabe egingo du hanka, gutun bat utzirik Emmarentzat eta berau guztiz zapuztuta geratzen da. Azken gertakarien arrazoiz Emma gaixo jartzen da, deprimituta, berriro ere bizitza ezin eramanda. Pixkanaka Emmak hobera egiten du arean, Charlesekin Rouenera operara eroatea erabakitzen du. Bertan Leon Dupuiserekin egiten dute topo.

Hirugarren zatia

Leon Emmaren amorante bilakatuko da, berau, piano eskolak hartzen dituelakoan, Leon Dupuisekin isilpean bilduko da. Zorrak pilatzen doaz eta ordainagiriak etengabe sinatzen dizkio Lherheux jaunari, diru arazoak itzelak dira Bovary familian, azken aldi honetan Emmaren mundu erreala eta ametsezkoa, hau da, Emmaren benetako bizitza eta bizi izan nahi izango lukeena ezin urrutiago daude. Opera Komikoko tenore batez maitemintzen da, asperrezia eta asebetegabetasuna muturreraino doaz. Amorante guztiek bazterrerara utzita eta zorrez lepo, Emma erabat etsita dago eta bere burua hiltzea erabakitzen du Homais jaunaren botikara doa eta bertan artsenikoa jango du, gero etxeko ohean hilko da. Emma hildakoan Bovary familiaren egoera kritikoa da, bai etxea eta bai ondasun guztiak saltzen dituzte enkantean zorrak kitatzeko, Charlesekin Rodolpheren gutuna aurkitzen du eta emaztearen fideltasun ezaz jakitun jartzen da. Hala ere, Charlesekin ez du arrazoi nahikotzat hartzen Emma ez maitatzeko. Bovary jauna ere hilko da, eta Emmaren aita elbarri geratuko da, Berthe, alaba, izeko batekin bizitzera joango da. Beste alde batetik, Homais botikarioak ohorezko gurutzea lortuko du eta gizon arrunt, lerdo eta barregarria izan arren, gizon arrakastatsu eta onbera bezala agertuko da, mundu errealean dauden kontraesanen ikur bat balitz bezala.



PERTSONAIA NAGUSIAK Lehen Mailakoak

* **Emma Bovary**

Bere deskribapena partziala eta mailakakoa da. Neska luze eta ederra da. Edertasuna areagotu egiten zaio zorientasunarekin. Begirada zuzen, zintzo eta xumekoa da. Ile beltza eta ezpain haragitsuak ditu. Emakume honek duen gauzarik interesgarriena nortasuna da. Eskola garaian amesgilea zen, sutsua, oldartsua, apetatsua, erromantikoa eta buruarina, egin zituen irakurketa erromantikoen eraginez agian. Bere helduaroan emozionalagoa da arrazionala baino. Bere nortasunaren eraikuntzan eragina izan zuten Balzac eta George Sand irakurri izanak, Jeanne d'Arc bezalako emakume historikoei buruzko lanek. Eleberrietako pertsonaien antza izan nahi zuen, bizitza idealizatzea behar zuelako. Ezkon-bizitzaren hasieratik senarrarengandik urrunduz doa, gorrotatzera iritsi arte. Emazte zintzoaren papera antzestu arren, Rodolphe bere lehenengo amorantearekin adulteriora egiten du. Egotriak bere buruan soilik pentsatzera darama. Ez da zorientzua ez senarrarekin, ez amoranteekin; azken hauekin dituen harremanak kaltegarriak izango dira. Bizi-porrota daraman bizitzaren ondorioa da, horrek bere buruaz beste egitera eramango du.

* **Charles Bovary**

Berarekin hasi eta bukatzen da obra. Ez da oso azkarra, ez zuen lortu mediku osoa izatea; osasun-ofizial izatera baino ez zen iritsi. Emma bezala, arrakastarik gabeko gizona da. Lanean dituen zailtasunek kideren baten laguntza eskatuko dute, Hipolyteren ebakuntzaren kasuan bezala. Bere hizitza afektiboa porrotezkoa da, bai bere lehenengo ezkontzan, bai bigarreanean Emmarekin. Zalantzatia da; Emma da erahakiak hartzen dituena. Pertsonaia gisa, irakurlearengan sentimendu kontrajarriak sortzen ditu: gogaitu egiten du, baina aldi herean gogoko egiten zaio irakurleari. Aita ona da, pertsona ona. Maitasunagatik hiltzen da, eleberrierromantikoko bateko heroia gisan.

* **Rodolphe**

Emmaren lehenengo amorantea da. Lur-jabea, gaztea, gonazalea, maitale zaildua eta zinikoa. Emma ezagutzen duenean Virginia aktorearen maitalea da. Estrategia gisa baliatuko du hizkuntza erromantikoa Emma limurtzeko. Eleberraren hasieratik pertsonaia finkatua da eta ez du bilakaerarik. Emma zorientzua da berarekin, baina azkenean utzi egingo du, inolako azalpenik eman gabe.

* **Leon**

Emmaren bigarren maitalea. Lanbidez notario-laguntzailea. Bere lehendabiziko agerraldian, eleberraren bigarren zatia hasieran, topiko erromantikoz beteriko elkarrizketa izango du. Emmarekin duen harremanean bi fase bereiztu ahal dira: lehenengoan, Yonvillen, Emmarekin maitemindua dago, baina Emma berarekin ez; bigarreanean, Rouenen. Zorientzua dira denbora tarte labur batez, Leonek Emma utzi egingo du bere karrerarako oztopotzat jotzen baitu. Bilakaera duen pertsonaia da, hasierako erromantizismotik erotismora igaroz, eta ondoren egoerara egokitzen den burges bihurtuz. Erdipurdiko pertsona da, ahula eta koldarra, Rodolphe bezala. Emmak bere ezkon-hizitzan aurkitzen ez duen pasio-maitasuna Leonengan aurkituko du, baina oso gutxi iraungo du.

* **M. Homais, botikaria**

Antiklerikala izanik, elizgizonak hipokrita eta iruzurtizat jotzen ditu. Pertsona jaso da, besteak beste Voltaire eta Rousseau bezalako autoreak irakurtzea maite du, eta baita prentsa idatzia ere. Sektarismo ideologikoaren ordezkaria da. Seme-alabei jarri dizkien izenetan handitasun asmoak antzematen dira. Pedantea da sakona baino areago, ezagutzen dutenen artean balorazio kontrajarriak eragiten ditu. Bere interesa besterik ez du bilatzen eta besteekiko bihozgabe ageri da.

* **Lhereux**

Handizalea eta lukurreroa da. Homais bezala hurgesiaren irudia da. Berak eragiten du, azken finean, Emmaren suizidioa.


Bigarren mailakoak

* Bizkondea. Emma une erabakigarrietan oroitzen da berarekin, horretan datza pertsonaia honen garrantzia. Emmarentzat maitale perfektua ordezkaten du, beti lortu nahi izan duen eta inoiz aurkitu ez duen ametsa.

* Apaiza. Antiaurrerakoia eta paternalista da, ezbeharren aurrean pertsonen artean etsipena zabaltzearen aldekoa. Konformismo espiritualaren ordezkaria da. Funtsean, pertsonaia honen eta Homaisen arteko nolabaiteko paralelismoa dago.

* Lariviere doktorea. Medikua, filosofoa eta liberala da, oso miretsia bere ikasleen artean. Orbangabea profesionala, azkarra, bokaziozko medikua eta bere lanbidea dela eta, agian bibozgabeta. Ematen du Flaubert bere aitarengan inspiratu zela pertsonaia hori sortzeko.

Zehar estilo librea XIX. mendeaz geroztik narratiban erabiltzen den zehar estilo mota. Kontalariaren ikuspegitik pertsonaiaren ikuspegrainoko lekualdatze prozesu bat ematen du aditzera: kontalaria bera hasten da pertsonaiari buruzkoak hirugarren pertsonan kontaktzen, baina gero hura balitz bezala mintzatzera jotzen du, bien ikuspuntuak konbinatuz. Ezaugarri nabaria izaten da menpeko esaldiaren lokailua desagertzea, eta batzuetan komatxo artean jasotzen da. Bokatioak ager daitezke eta espresibitate emozionala aditzera ematen da galdera eta esklamazioen bidez. Estiloaren garapena Flaubertek egin zuen bereziki *Madame Bovary* eleberrian (1857): “Madame Bovaryk utzi egin zion musika jotzeari. Zertarako jo? Nork entzungo zion?”



Eugene Giraudek margotutako *Gustave Flaubert*-en erretratua. Idazle honen bizitzak ez du aipamen berezirik, gehiena bere lursail batean itxita igaro baitzuen. Haren helburua objektibotasunean eta inpersonalitasunean oinarritutako perfekzio literarioa lortzea izan zen.

Zolaren naturalismoa


Emile Zola (1840-1902) garaiko positibismoaren eraginez, errealismoari balio zientifiko handiagoa ematen saiatu zen, gizakiaren eta gizartearen jarrera aztertuz. Horretarako, jaraunspenaren legeak, ingurugiroaren eragina eta metodo experimentalak erabili zituen.

Idazle errealistak inguratzen duena behatu eta deskribatu egiten badu, idazle naturalistak, ahal dituen datu gehienak bildu ondoren, gizakien izaera eta jokabideak arautzen dituzten legeak aurkitu nahiko ditu.

Balzac-en eredia jarraituz, 1871 eta 1893 urteen artean *Les Rougon-Macquart* hogeiei eleberri saila idatzi zuen, sendi baten enbor genealogikoan oinarriturik. Bertan mende amaierako gizarte frantsesaren alde gordinenak azaltzen ditu (akatsak, alkoholismoa, gaixotasunak, miseria...). Aipa ditzagun *Taberna* (1877), alkoholismoaren eta langileen esplotazioaren gaia ukitzen duena; *Naná* (1880), bere jaioleku miserabletik ateratzeko kabareteko dantzari bihurtzen den emakumearen istorioa; *Parisen sabela* (1873) eleberrian frantziar hiriburuko merkatu nagusiko giro bizi zalapartatsua maisuki jaso zuen; *Germinal* (1885) nobelan, berriz, meategietako langileen grebak eta aldarrikapenak epikotasun handiz kontaktzen ditu.

INGALATERRA

XIX. mendearen bigarren erdian zehar Europa osoan ekonomia, gizarte eta izpiritu egoera konplexua bizi izan zuten, Industria Iraultza eta burgesiaren boterearen eskuratzea zela eta. Narratiba errealista guzti horren lekuko izan zen; ondorioz, garapen handiagoa izan zuen gizarte burges sendoenetan, Ingalaterran adibidez. Bertan, Charles Dickens idazlea guztien artean nabarmendu zen.



Dickens eta idazlearen egoera berria

Ingalaterrako biztanleria irakurtzera ohituta zegoen aurretik. Egunkariarekin batera edo kapituluka oso merke saldutako **emanaldikako eleberri edo foiletoien** bermatzeak idazleekiko benetako irrika sorrarazi zuen, irakurleentzat haiek heroi bihurtu zirelarik. Sistemak baldintzatua, garaiko eleberriak luzeak izan ohi ziren, egitura aldakorreko intrigazko korapilo eta amaiera zoriontsuarekin.

Charles Dickens da idazle ospetsu berriaren adibide bat, irakurleek haren hileko emanaldiak biziki itxaroten baitzituzten.

Dickens eleberrigile ingelesa (1812-1870) Armadako diruzaintzako enplegatu baten semea izan zen, bigarrena zortzi anai-arreben artean. Haurtzaroko atsekabeek eta arreba Fannyren maitasunak eragin handia izan zuten bere obran. Haurtzaroko lotsak gogoan izan zituen beti, eta hala agindu bazuen ere, ezin egin izan zuen bere bizitzaren

biografia. 1823an Londresera joan zen bizitzera bere familiarekin batera. Aita kartzelara sartu zuten eta betun lantegi batean lan egin behar izan zuen hamabi urte zituela, aitaren zorra kitatu arte. 1827an notario baten bulegoan hasi zen lanean eta ondoren *Morning Herald* egunkarian takigrafo gisa familia aurrera ateratzeko.

Bere estreinako lana *Pickwick club-eko hilonoko paperak* izan zen, garai hartako injustizia eta gehiegikeriak salatu zituen Dickens-ek, bere bizitzan zehar argitaratu zituen liburu guztietan bezala. Hunkigarriak dira, halaber, *The Adventures of Oliver Twist* (1839) eta *The Adventures of Nicholas Nickleby* (1839) obrak. 1840. urtean Estatu Batuetan barrena egin zuen bidaiaren ondoren, *American notes* (1842) liburua idatzi zuen, eta bertan Ameriketako esklabo-tratalari eta materialisten aurka hitz mingotsak erabili zituen.

Hautzaroa agertu zuen berriz ere *David Copperfield* kutsu autobiografikoko elaberrian (1849-1850). Kapitalismo zapaltzailea salatu zuen *Hard Times* eleberrian (1854, *Garai latzak*). *Great Expectations* (1861, *Esperantza handiak*) eleberrian gaizkileen eta goi-mailako jendearen arteko lotura azaldu zuen. Errealitate bortitza, desira eta ametsak deskribatu zituen idazlea da Dickens eleberrigile ospetsua.

ERRUSIA

Errusia ez da Europako literaturaren mapan XIX. mendera arte sartzen; indar handiz egiten du, ordea. Bere idazle handien lan zirrargarriek (Puxkin, Dostoievski, Tolstoi), tsarren gobernu despota eta errepresiboak zapalduetako gizarte baten konplexutasuna, eta nobleziaren oinazpian morroi bizi ziren nekazarien miseria erakusten dute.

Errusiako egoera berezia zela eta, idazleen hitza herriaren ahots bihurtu zen, errusiarrek biziki maite izan baitute poesia eta literatura betidanik. Hori dela eta, tsarren zentsuraren kontrolpe zorrotzean zeuden.

Alexandr Puxkin (1799-1837) Errusiako literatura berritu zuen. Aristokrata eta funtzionarioa, bere ideia liberalak zirela medio erbesteratuta egon zen, eta duela batean hil zen, artean gazte zenean. Jenero guztiak jorratu zituen: poesia lirikoa, filosofikoa edo satirikoa, epika, herri kondairak, antzerkia (*Boris Godunov*), genero narratiboa etab. Bere bi lan garrantzitsuenak hauek dira:

- *Yevgeni Onegin*, bertsoan dagoen nobela erromantikoa, errealitatean girotutakoa.
- *Kapitainaren alaba*, nobela historikoa, amodio gorabeheratsua kontatzen duena.

Nikolai Gogol (1809-1852) errusiar errealismoaren aitzindaria da, *Taras Bulba* eleberriz laburrean oraindik joera erromantikoa nabaria bada ere. *Ikuskari nagusia* antzezlanak (1836), tsarren burokrazia ustela salatzen zuen, eta izugarritzko iskanbila sortu zuen.

Bere ipuinik ezagunenak San Petersburgon giroturik daude: *Erretratua*, *Ero baten egunerokoa*, *Nevako ibilbidea*... eta batez ere *Sudurra* eta *Longaina*. Giro errealista darabil horietan Gogolek, hiriko arazoak, burokrazia eta maila xeheko pertsonaiak azaltzeko.

Gogolen obra nagusia *Arima hilak* (1842) eleberria da. Obra honetan protagonista iruzurgilearen bitartez errusiar nekazal munduaren miseria deskribatzen du, errealitatean hilda dauden morroiak dituela esanez, lurrak eta diru laguntzak lortzen dituen.

Bigarren parte bat erantsi zion hari, errusiarren bertuteak goraiatu nahian. Baina, huts egin zuela pentsatuta, erre egin zuen idazkia (1852). Atsekabetuta hil zen, gizadia eta Errusia iraintzean bere bokazioari huts egin ziola pentsatuz.

Fiodor Dostoievski historiako idazle nagusienetarikoa da azaltzen dituen arazo existentzialen sakontasunagatik eta bere pertsonaien konplexutasun psikologikoagatik.

Bere lehenengo nobelan (*Gizagaixoak*, 1846) agertu zen, Dostoievski-k bere lan guztietan zapalduen alde erakutsi zuen errukia. Siberiako kartzelako bere esperientzia *Hilen etxeko*



oroitzapenak (1862) obran islatzen da. *Lurpeko oroitzapenak* (1866) lanean bere maisu lanek izango duten konplexutasun psikologikoa eta argumentuarena iragartzen du:



- *Krimena eta zigorra* (1866): Raskolnikov gazteak krimen bat egiten du denen moralaren gainetik dagoelakoan, baina aladura izugarriak jasan ezinik dena aitortzen du.
- *Idiota* (1869): historia honen pertsonaia zintzoak porrot egiten du maite duen emakumea askatzeko ahaleginetan.
- *Karamazov anaia* (1880): familia baten bitartez eginiko giza arimaren konplexutasunaren azterketa da.

Liev Tolstoiren obra zabalak, errusiar nortasuna eta ohituren deskribapen koadro itzela osatzen du. Bere gaztaroan, autobiografia hiru zatitan idatzi zuen, eta bere esperientzia belikoa *Sebastopoleko kontakizunak* obran islatzen zuen, zentsurarekin arazoak sortu zizkion errealitate gorria erakusten zuena.

Bere lehenengo maisu lana *Gerra eta bakea* eleberri itzela izan zen (1863-1869), nobleziaren bi familiaren arteko gorabeheren bitartez Napoleonek Errusian egindako kanpainen kronika egiten duena. Arrakasta handikoa izan zen *Anna Karenina* (1877), protagonista adulteriora eta bere buruaz beste egitera eramaten duen pasiozko amodioa kontatzen duen istorioa. Azterketa psikologikoaz gainera, gizarteko arau puritanoak kritikatzeko ditu.

Errusiako kulturaren patriarka bihurtuta, nobela motz hauek idazten ditu: *Ivan Iltxen heriotza* (1886) eta *Sonata Kreutzer-i* (1889). Bere azken nobelak, *Berpiztea* (1899), bere zahartzaroko kezka erlijioso eta karitatezkoak islatzen ditu.

Errealismoa eta erromantizismoa erkatuta:

Erromantizismoa	Errealismoa
GAIAK	GAIAK
Niaren, poetaren barrukoaren eta subjektibitatearen garrantzia.	Egilearengandik kanpoko errealitatea eta objektibitatea dira garrantzitsuak.
Giro exotiko, urrun eta misterioitsuak.	Eguneroko, hurbileko toki ezagunak.
Sentimenduen deskribaketa (maitasuna, etsipena, askatasun nahia...)	Egoera ekonomiko, gai sozial, eztabaida ideologiko, erlijioso eta moralak.
Heroe eta pertsonaia exageratuak, ekintza historiko eta leiendetan oinarrituak. Beste mundu	Pertsonaia arruntak, hurbilak, ezperfektuak. Burgesia deskribatzea. Giro soziala islatu nahi dute.
Gai historiko, mitologiko eta heroikoak gustuko. Barnea askatu.	Eguneroko arazoekiko kezka. Kritikoak izateko nahia.
FORMA	FORMA
Artea egilearen adierazpide pertsonal eta askea da.	Artea errealitatearen isla adierazteko erabili behar du egileak, <u>ispilu bezala</u> .
Abiapuntua poetaren imaginazioa, fantasia da.	Abiapuntua errealitatearen behaketa eta gertakari objektiboen <u>analisi</u>
Helburua harrigarria, bitxia edo apartekoa dena islatzea da.	Helburua egunerokoa, ohikoa dena objektibitatez islatzea da, iritzirik eman barik.
Ezaugarriak nabarmendu egiten dira pertsonaiak, <u>sentimenduak esterotipatu</u> .	Lanek sinesgarritasuna bilatzen dute, egiazkotasuna, <u>benetakotasuna</u> .
Hizkuntza esklamazio, harridura, galdera eta <u>parodiez betetzen dira</u> .	Hizkuntza estandarra hobesten dute, zehatza interpretazioak saihestuta, kritikoa.
Poesia nagusitzen da.	Nobela nagusitzen da.

NARRAZIOAREN OSAGAIAK: NARRATZAILEA ETA IKUSPUNTUA

Narrazioaren funtsezko osagaietako bat narratzailea da, bi dira bereziki kontuan hartu beharreko alderdiak:

- **Ikuspuntua: narratzailea istorioan inplikaturatuta dagoen ala ez.**
- **Narratzaile-mota, hau da, nork kontatzen duen istorioa eta zelan.**

Ikuspuntua	Narratzaile-motak
<p>Narratzaileak barruko ikuspuntua duenean, narratutako gertaeren barruan dago, eta, oro har, agertzen diren pertsonaietako bat da.</p> <p>Kontatzen den istorioan inplikaturatuta egon ohi da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Protagonista: pertsonaietako bat izanik, beroni gertatzen zaiona ezagutu eta kontatuko digu. Istorioan inplikaturatuta egongo da. • Protagonista anitzak: pertsonaia bakar bat barik, batzuk dira gertaerak, arrazoiak eta nork bere intziak kontatzen dizkigute. • Lekukoa: gainerako pertsonaien ekintzak ikusi eta kontatuko dizkigu.
<p>Narratzaileak kanpoko ikuspuntua duenean, narratutako gertaeretatik kanpo dago, eta bere buruan ez dio erreferentziarik egiten.</p> <p>Istorioan, beraz, ez dago inplikaturatuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Orojakilea: gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, gerora ere zer gertatuko den... • Narratzaile objektiboa: pertsonaiek egiten dutena erakusten digu baina ez du iritzirik ematen, ezta pertsonaien joan-etomia baloratzen ere. askotan bideo-kamera batekin konparatu izan da narratzaile hau.

ESPAINIA

Benito Pérez Galdós (1843 - 1920)

Espainiako Errealismoaren momentu esanguratsu guztiek nahitaezko aipamena dute Benito Pérez Galdosen obran. Egile nekaezina izan zen, bizitzaren eta historiaren behatzaile zorrotza eta Cervantesen nobela tradizioko hoberena bere garaiko azken berrikuntzekin elkartu zuen. Zorioneko elkarketa honetatik trinkotasun eta oparotasun apartako lana atera zen. Era berean, Galdós da Espainiako historia garaikidearen ikuspegi orokorra eta koherentea duen idazle bakarra. Hau *Episodios nacionales* nobela-sortan islatzen da.

Las Palmas-en jaioa, Zuzenbide ikasketak egin zituen Madrilan. Hasieran kazetari eta itzultzaile izan zen (Dickensen *Pickwick*). 1871n, *La fontana de oro* eleberria argitaratu zuen. Aurreko eleberriaren gai historikoak bidea zabaldu zion Pérez Galdós-en *Episodios Nacionales* eleberri sail ezagunari. 1873-1879 urte bitartean hogeitaz hamar eleberri idatzi zituen sail horretarako. Pérez Galdós-en historia ikuspegia liberala da, eta bere eleberrietan garai hartako Espainiako gatazka ideologikoa jasotzen du. 1881ean *La desheredada* argitaratu zuen, Balzac eta Zolaren ereduari jarraitzen diona, eta Espainiako lehen eleberri naturalistatzat hartua izan zena. Garai hartakoa da, besteak beste, *Fortunata y Jacinta* (1886-87) maisu lana. Mende hondarrean, psikologiazko eleberrigintzari ekin zion, Tolstoiren ildotik: 1892, *Tristana*; 1895, *Nazarín*... 1898-1912 urte bitartean, *Episodios nacionales* izeneko sailari jarraitu zion eta hogeita sei liburu argitaratu zituen, lehenagokoez gainera, Zumalakarregirekin hasita.

Leopoldo Alas, *Clarín* (1852 - 1901)

Bere eleberri-produkzioa urria bada ere (*La Regenta* eta *Su único hijo*), lehen tituluaren garrantzia izugarria da, eta XIX. mendeko espainiar eleberri onenetakoa da, zalantzarik gabe.

La Regenta

Obra honetan bere konplexutasun osoan probintzia-hiri bat deskribatzen da, **Vetusta** (izen honen atzean Oviedo gordetzen da), eta bertan Errestaurazio garaiko (XIX. mende amaierako) gizarte espainiarra irudikatzen da.

La Regenta ekintza gutxiko nobela da, eta bertan garrantzi handia hartzen dute pertsonaien psikologiaren eta inguruen deskripzioek: katedrala, kasinoa, burgesiaren bilerak...

*Clarín*ek ikuspuntu objektiboa, hotza, bere parte hartzeekin elkartzen du, bere iritzia eta, batez ere, ikuspegi ironiko zorrotz bat emanez.

Ana Ozores, eleberriko protagonista, gizon onbera eta hura baino asko ere zaharragoa den Víctor Quintanar hiriko "Regente" ohiarekin ezkontzen da. Harreman horrek ez ditu, baina, emakumearen behar sentimentalak asetzen. Denboragarrean, Álvaro Mesía donjuan probintziarra Ana kortejatzen hasten da; bestalde, Fermín de Pas apaiza ere (Anaren aitortzailea) sutuki maitemintzen da berarekin, Mesíaren lehiakide bilakatuz. Idazleak espainiar probintzietako gizarte hipokrita baten erretrato zehatza eta krudela egiten du.

Eleberria oso luzea da eta nolabaiteko antza badu Flaubert-en *Madame Bovary* eta bai Tolstoir-en *Anna Karenina*-rekin; izan ere, hiruretan kontaktzen da emakume baten adulterioa eta bai horrek dakarkion azken tragikoa.

Lehen mailako pertsonaiez gainera, bigarren mailakoetan ezin konta-ahala azaltzen dira, ederki definituak. Bestalde, hiriko elkar-bizitzaren trama agertzeko autorea barneratutako bakarrizketaz eta zehar estilo libreaz baliatzen da; horrela, istorioa pertsonaiek eurek kontaktzen dute, beren gogoetak eta pentsamenduen berri ere ematen digutela.



obraren baten izenburuarekin batera.

ERREALISMOA

1. Errealismoa: zein korrionteren ondoren etorri zen? Zein faktorek izan zuten eragina errealismoaren sorreran?
2. Errealismoa: esan non sortu zen eta zeintzuk diren bere ezaugarriak garrantzitsuenak.
3. Frantzia, Ingalaterrako eta Errusiako idazle errealista batzuk aipatu, euren obraren baten izenburuarekin batera.
4. Frantziako eleberri errealista: lau idazle eta lau obra aipatu
5. Gustave Flaubert: literaturan izan duen garrantzia; haren idaztinkeraren ezaugarri batzuk. *Madame Bovary*: zer istorio kontaktzen da eleberri horretan?

